



Gure Lagunak
"Las Melidas"
Salvador



Sareen garaia
Grupo Sur-en misioa
Ertamerikara



Argitalpenak
2008ko memoria



Aurpegia emanez
Eneko Gerrikabeitia,
Palestinako kooperantea

Larrialdiari emandako erantzunaren balantzea egiten dugu

Mundubat-ek bere konpromisoa berretsi du Kubarekin, Gustav eta Ike urakanak igaro ondoren

2008ko abuztuaren 30etik irailaren 9ra arte, Gustav eta Ike urakanek kalte handiak eragin zituzten Kubako uhartean. Haizeek, euriteek eta uholdeek ia ia herrialde osoa zeharkatu zuten, eta kalte material handiak sortu zituen. Hori dela-eta, Kubako oraintsuko historiako urakan-denboraldi suntsigarriena izan da.

Ondorio kaltegarrienak etxebizitzetan gertatu ziren, urakanek 444.000 kaltetu zituztelako eta, horietatik, 63.000 erabat hondatu zituztelako.

1996. urteaz geroztik, Mundubat-ek elkartasunean oinarritutako eta garapen sozio-ekonomikoarekin konprometitutako jarduerak garatzen ditu Kubako herrian. Urakanak direla-eta, fundazioak zenbait laguntza-ekintza jarri ditu abian, agerpen handiena dugun gune geografikoetako azpiegiturak eta

etxebizitzak lehenertzeko: Las Tunasko probintzia eta Juventud Uharteko udalerririk berezia.

Guztira, 687.925 euro erabili dira, bizitegi-azpiegiturak ordezkatzeko, ekoizpen zein gizarte arloko azpiegiturak zaharberitzeko, oinarritzko tresnak hornitzeko eta babes eraginkorrerako prebentzio-neurriak ezartzeko.

Kubako zenbait erakunde eta agintari ekintza horien garapenean egon dira engeiatuta, eta, euren artean, honako hauexek nabarmentzen dira: Animalia Ekoizpenaren Kubako Elkarte (ACPA), Etxebizitzaren Institutu Nazionala, defentsarako udal-kontseiluak, Etxebizitzaren Udal Zuzendaritza eta Kanpo Merkataritza eta Atzerriko Inbertsiorako Ministerioa (MINCEX).

Ahalegin horretan, honako hauexen finantziazioa eduki dugu: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala eta Europako Batzordeko Laguntza Humanitarioko Saila. Modu berean, herrialdean bertan zuzenean egindako kudeaketen bidez, Caja de Madridek Habanan daukan ordezkariaren babesa ere jaso genuen.



Agenda

- Ekainak 15-30. Gasteiz (Cuchilleria kalea, 60). "Beste aldetiko begiradak" argazki-erakusketa
- Ekainak 12. (23:00etan). Arrasate. "Beste Begietatik" Ipuin kontaketa
- Ekainak 16. (19:30etan) Donostia. Udal liburutegian. "Beste Begietatik" Ipuin kontaketa
- Ekainak 16. (20:00etan) Donostia. Udal liburutegian. "Bolivia en pie" dokumentala
- Ekainak 18. (19:30etan) Bilbo. Hikateneo (Ibeni kaia, 1). "Beste Begietatik" Ipuin kontaketa

Zure, gure lanabesa

1988an, Hirugarren Mundua ta Bakea sortu zen, hegoaldeko erkidegoei justizia sozialaren eta giza garapenaren erronketan laguntzeko.

Gaur egun, Mundubat izenpean, geure helburuari eusten diogu: pertsona guztiek, emakumeek zein gizonek, eskubide guztiak edukitzea mundu partekatuan.

Ahalegin solidario horren adierazgarri da berripaper hau. Bi hilean behin argitaratuko dugu, eta elkar-gunea nahiz tresna erabilgarria izan nahi du bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa den beste mundu batean sinesten dugunontzat.

Zure iradokizun eta ekarpenen zain egongo gara!



Salvadorko Mélida Anaya Monte Emakumeen Mugimendua "Las Mélidas"

Salvadorko bake-hitzarmenak sinatu zirenean, demokratizazio-prozesurako oinarriak ezarri ziren, eta, handik aurrera, subjektu sozialak euren berezitasunak azaltzen hasi ziren. Euren arazo eta egoerei buruz eztabaidatzeko dituzten guneetan, salvadortarrek euren eskariak egiten dituzte, eta, apurka-apurka, behar besteko protagonismo politiko eta soziala lortzen dute, eraldaketa-prozesurantz aurrera egiteko. Las Mélidas testuinguru horretan sortu zen, hain zuzen ere.

"Mélida Anaya Montes Emakumeen Mugimendua" (LAS MÉLIDAS) erakunde feminista da, eta, 1992. urteaz geroztik, emakumeen giza eskubideak sustatu eta defendatu egiten ditu. Bere programa guztiek genero-arloko bereizkeriari eta bazterketari aurre egitea dute helburu. Horrela, gizarte benetan demokratikoa eratu nahi dute, gizon eta emakumeen arteko harremanak berdintasunezkoak izan daitezzen eta, arlo publikoan zein pri-

batuan, gizon eta emakumeek eskubide nahiz betebeharrak berberak eduki ditzaten.

Las Mélidas elkarteak honako erakunde feminista hauekin batera lan egiten du, babesa emateko eta emakume gazte zein helduen aldeko proposamenak egiteko: Azaroak 25 Lantaldea, Sexu eta Ugalketa arloko Osasunaren aldeko Aliantza, Legegintza Batzarreko Familia Batzordea, gizarte zibileko erakundeak eta gobernuko instituzioak.



Las Mélidas Mundubat-eko toki-bazkide estrategikoa da Salvadorren. 2008-2010eko epealdiari begira, lankidetzaren estrategikorako hitzarmena dugu elkarrekin. Geografiari eta sektoreari begira, bi erakundeek epealdi horretan batera

egingo duten lana plan eragilean dago zehaztuta.

2008an, Las Mélidas-ek eta Mundubat-ek elkarrekin lan egin genuen zenbait ekimenetan: "Partaidetza politiko eta herritarrerako eremuak eratzen Mejiicanosko udalerriko emakume gazte eta helduentzat", Donostiako Udalak finantzaturakoa; Zaragozako Elkartasun Lantalde Internazionalistarekin batera, "Emakumeen herritartasuna indartzea", Aragoiko gobernuak finantzaturakoa; "Emakumeen partaidetza politiko eta herritarra sustatzen Ayutuxtepequeko udalerrian", Emakumeen Institutuak finantzaturakoa; eta "Mejiicanos eta Ayutuxtepequeko udalerrietako emakume gazte eta helduen herri-partaidetza sendotzea, zerbitzu sozio-ekonomiko eta kulturalerako aukerak hobetzeko", Europako Batzordeak finantzaturakoa.

Aurton ere, Las Mélidas elkarteak emakumeen partaidetza politikoa indartzeko egindako zenbait proposamenen kudeaketa babesten ari gara, FMLNk 2009ko martxoko presidentetza-hauteskundeak irabazi ondoren etorkizun hobetako eta emakumeentzako itxaropena eskaintzen duen testuinguru sozial eta politikoa berria.

Esperientzia adierazgarriak

Kolonbia. Herri indigenen erakundearen egiturak sendotzea

Proposamen hau Kolonbiako Indigenen Erakunde Nazionalaren (ONICen) Estrategian (2004-2010) dago oinarrituta, eta hiru ardatz hauen inguruan egituratzen da: erakundeak sendotzeko ardatza; herri indigenen eskubideak eragingarriak izateko, onesteko eta abian jartzeko ardatza; eta nazioartean agerpena edukitzeko eta erakunde indigenen arteko trukea sustatzeko ardatza.

Hiru ardatz horietan oinarrituta, nazioarteko proposamena sendotuko da, honako prozesu hauek sustatzeko: trebakuntza (giza eskubideak, nazioarteko zuzenbide humanitarioa, emakumeak eta kultura, jurisdikzio indigena, legeria nazionala eta nazioartekoa); generoa; erakunde indigenen plan estrategikoak; eta komunikazioa. Aldi berean, herri indigenen lurraldeetan eragina duten gai zehatzak jorratuko dira, Herri Indigenen Behatokia sendotuta. Horrez gain,

abokatuen talde batek honako hauek izango ditu hizpide: osasuna, giza eskubideak, baliabide naturalak ustiatzeko megaproiektuak, gobernuaren urraketa eta justizia.

Nabarmendu egin behar da proiektua abian dagoela eta Kolonbiako herri indigenen politika integrala suspertu duela era kolektiboan. Horiek horrela, Kolonbiako instituzionaltasunak betebehartzat hartuko du, eta indarreko legeria betearazi eta hobetu egingo du. Azkenik, gai indigenekin zerikusia duten nazioarteko foroei emango zaie lehentasuna (Gai Indigenen

Foro Iraunkorra eta Genevako Giza Eskubideen Kontseilua); Europako Batzorde eta Parlamentura joko dute; eta birak egingo dira Espainian, Amerika Latinoko erakunde indigenekin esperientziak trukatzeko.

Hitzarmena Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECIDek) finantzatzen du, estatu-mailan garatuko da eta 4 urteko iraupena izango du.

28.000 gizon eta emakume indigena izango dira proiektu honetako onuradunak.



Sareen garaia

Grupo Sur-en misioa Ertamerikara

GGKE-en aliantza europarrak, Grupo Sur-ek, misioa antolatu du Ertamerikara, FMLNk Salvadorren lortutako hauteskunde-garaipenaren ondoren sortutako eskualde-egoera berriaren esparruan espazio eta agenda sozial eta instituzionalak zehazteko asmoz. Mundubat, hain zuzen ere, talde horretako kidea da.

Sei herrialdetako 11 erakunde maiatzaren amaieran Parisen egindako bileran, gaur egungo une sozio-politikoan gizarte zibilaren ekimenak sustatzea eta gobernu progresistekin hitz egitea oso egokia dela adierazi zuen aliantzak. Izan ere, aliantzak berak Europar Batasuneko politiken jarraipena egiten dio eskualdean bertan, eta lehentasuna ematen dio Ertamerikako integrazio-prozesuari. Misioak lau herrialde zeharkatuko ditu (Salvador, Guatemala, Nikaragua eta Honduras), eta erakunde zein sare sozialekin, gobernuko instituzioekin eta eskualde-integraziorako erakundeekin batzartuko da, euren benetako lehentasunak zeintzuk diren jakiteko eta gizarte zibilarekin lan egiteko aukera berriak arakatzeko asmoz. Bertan, Grupo Sur-ek bere jarraera azalduko du, EBk eta gobernuak elkarketa-hitzarmenen inguruan garatutako negoziaketen etenaldi estrategikoa egin behar dela uste duelako. Izan ere, aliantzaren ustetan, landutako eredia krisi ekonomiko eta finantzarioaren barruan dago, eta oinarri berriak ezarri behar dira, negoziaketa gehiengodunen mesederako izan dadin.

Bestetik, Grupo Sur aurtengo bigarren seihilekoan Kuban bertan erakunde kubatarrekin batzartzeko aukera aztertzen ari da. Horrela, batera hausnartu ahal izango dute Europar Batasunarekiko lankidetzarako irekitako testuinguru berriari buruz. Orain dela gutxi, uharterako agintariak Bruselan duten Rodríguez Perdomo enbaxadorearen bidez zoriondu dute Grupo Sur, EBk Kubari ezarritako zigorrak kentzeko egin duen kabildeo-lanagatik, azkenean kendu egin dituztelako.



Iparra galdu gabe

Giza eskubideak alterglobalizaziotik

Maiatzaren 22an eta 23an, Donostiako Txoko Internazionalistan egin genituen "Giza eskubideak genero-ikuspegitik defendatzeko erronkak eta proposamenak" tailer iraunkorreko bi saio. Koordinatzailea Irene López Méndez, nazioarteko lankidetzako eta generopolitikatiko aditua, izan zen, eta, bertan, honako gai hauek jorratu ziren, besteak beste: zergatik hitz egiten dugu "emakumeen giza eskubideei" buruz?, giza eskubideen ohiko ikuspegiari buruzko kritika

feminista eta emakumeen mugimenduaren borroka giza eskubideek nazioarteko lankidetzan eta zuzenbidean izandako bilakaeran.


Ekimen hau "Giza eskubideak: alterglobalizaziotik emandako aukerak" proiektuaren barruan dago kokatuta. Horren bidez, komunikazio-bideak ireki nahi ditugu zenbait herrialdetako gizarte-mugimendu eta sareen artean, nahiz eta euren estrategiak eta egikerak desberdinak izan, alterglobalizaziotik defendatzen dituztelako giza eskubideak.



Nekazarien proposamenak

Aldi berean, "Nekazarien proposamenak, giza eskubideak eta elikaduraren subiranotasuna kontuan hartuta" proiektuaren bidez, hegoaldeko nekazarien baldintza eta errealitateen berri eman nahi dugu, eta pertsona guztien elikadura aldarrikatzen dugu oinarritzko eskubide moduan. Eragile neoliberalentzat nekazaritzako ekoizpena "negozioa" denez, gero eta sarriagotan urratzen dituzte nekazarien giza eskubideak.

Euren errealitate eta bizimoduak ezagutzeko, euren asmoak partekatze eta euren borroka babesteko, tailerrak eta hitzaldiak antolatu genituen maiatzean. Bertan, honako erakunde hauetako emakume ordezkariak parte hartu zuten: Mozambikoko UNAC, Brasilgo MST, Kolonbiako FEMUCAN Nariño eta Guatemala CUC. Euskal Herriko zenbait lekutan egin ziren: Basauri, Bilbo, Donostia, Getxo, Lasarte-Oria eta Vitoria-Gasteiz.



Aurpegia emanez

Eneko Gerrikabeitia Zenarruzabeitia, Chirgua (Venezuela), 1974, Mundubat-eko kooperante beterranoa da, bai eta benetako mundu-ibiltaria ere. Horren adierazgarri, lau herrialdetan egon da azken 11 urteotan: Nikaragua, Salvador, Kolonbia eta Palestina.



"Oso gustuko izan nuen Mundubat-ek lankidetzak oinarritzko erakunde adierazgarrien eraldaketarako laguntasuntzat hartzea"

Noiz sartu zinen Mundubat-en eta zer testuingurutan?

1998an sartu nintzen Mundubat-en, Deustuko Ekintza Humanitarioko Graduatuondokoa egin ondoren Mundubat-ek hegoaldean, Nikaraguan praktikak egiteko aukera eman zidan-eta. Ikasketa horiek egiten hasi baino lehen, unibertsitatean bertan zenbait lagunekin batera erreparatu nien munduan dauden desberdintasun itzelei, euren arrazoiei nahiz ondorioei eta antolamenduak hori guztia gaitzeko orduan duen garrantziari.

Nire ustez, Mundubat-en ikuspegia zentzuzkoa eta erakargarria zen, indarreko sistema eta desberdintasunak zalantzan jarri eta sistema ekonomiko zein politikoa eraldatu nahi zuten erakunde eta mugimenduekin lan egiteko aukera eskaintzen zidalako. Era berean, oso erabakigarria izan zen Mundubat-ek lankidetzak oinarritzko erakunde adierazgarrien eraldaketarako laguntasuntzat hartzea eta sorospen-topikoetatik ihes egitea. Nikaraguan, antolamendua hitza dimentsionatzen hasi nintzen.

Zergatik joan zinen Salvadorrera?

Nikaraguan hiru urte eman ondoren, une horretan Ertamerikako eskualde-koordinatzailea zen Chema Castánek Mundubat-en lana babestea proposatu zidan, 2001. urtearen hasierako lurrikarek lau-geiko hamarkadaren erdialdetik/amaieratik, gerra-garaitik, Mundubat-en laguntza jasotzen zuten erakundeen lan-eremuak suntsitu zituztenez.

Une hartan, azkar ibili behar ginen, ECHO-ren bidez berreraikuntzarako behar besteko laguntza jaso ahal izateko. Nola edo hala, nire "espezialitatea" ekintza humanitariaoa zenez, Salvadorrera joatea erabaki nuen. 2004. urtera arte egon nintzen bertan, nekazari, hiritar eta emakumeen mugimenduei lagun tzen. Bertan, oso ondo ulertu nuen prozesua kontzeptua kontuan hartu eta ulertu egin behar dela, gauzak epe luzera ikusteko eta zentzuzko estrategiak proposatzeko.

Gero, Kolonbiara joan zinen. Zer erkidegorekin lan egin zenuen bertan?

Kolonbian, gogo biziz lan egin nuen eta asko-asko ikasi nuen Kolonbiako indigenen mugimendu nazionalarekin, nekazarien zein emakumeen mugimendu nazionalarekin eta Chocóko erkidego afroinordekoekin. Guztiguzti bat egin zuten, herrialdeko gatazka odoltsuari eta gobernuen zigorgabetasunari aurre egiteko, herrialdeko gizarte-maila menderatzaile historikoen interesak baino ez zituztelako ordezkatzeko. Ondotxo ikasi nuen zer adierazi nahi zuten jende eta erakunde zoragarri horiek bizkarrean daramatzaten autonomia, duintasuna eta erresistentzia kontzeptuek. Etika gure lankidetzak-ekintzaren funtsezko osagaia dela jakin nuen.

Hego Amerikatik Ekialde Hurbilera, Kolonbia asaldatutik Palestinako dramara. Lan-apustu eta pertsonal-apustu irmoa.

Dramak nonahi daude "hegoaldean". Munduko egoera ez dago beste era batera azaltzerik, munduko biztanleen %20k baino gutxiagok dutelako baliabideen %80ren inguruko erabakiak hartzeko aukera eta boterea. Bertan, gainera, ez ditugu iparraldeko herritar moduan ditugun pribilegioak alde batera utzi nahi, nahiz eta historiari begira askotan larderiaz, indarkeriaz, kolonizazio kultural eta ekonomikoaren bidez... lortu ditugun eta menpetasunak sorrazi ditugun. Bertan, hain zuzen ere, kosta ahala kostako metaketa eta berekoieria dira nagusi, hain premiazkoa den elkartasunaren gainetik.

Palestina ere erresistentzia-borrokaren testuinguruan dago, honako arazo hauei aurre egiteko: kanpo-erasoa, bere autodeterminazio-eskubidearen ukapena, inposaketa kultural eta ekonomiko eta subiranotasunik eza. Lanaren arlotik eta arlo pertsonaletik erronka handia da apustu horri koherentzia aurre egitea, Palestinako erakundeekin eta Mundubat-ekin batera. Mundubat Palestinako taldekook gogo biziz eta indartsu ekingo diogu zeregina horri.

Argitalpenak

2008ko Memoria



2008ko Memoria argitaratu dugu, eta, bertan, zorroztasunez eta gardenetasunez azaldu nahi izan dugu gure jarduna nolako izan zen urtean zehar, fondo ekonomikoak nola kudeatu ditugun eta nolako balioetan oinarritzen garen zeregin horretan.

Hori guztiori gure **20. urteurrenaren** testuinguruan. Hain zuzen ere, une egokia izan da egin dako bideari buruz hausnartzeko. Geure alde onak eta txarrak aztertzea dugu helburu, eta, etengabe hobetu nahian, hegoaldeko erkidegok ditugun konpromisoak sendotzea ere bai.

Gatazka armatupeko herrialdeak, eskubideak eta garapena. Kolonbia, Chiapas, Palestina, Sahara



Koaderno honetan, gatazka armatupean dauden lau herrialde horietako ordezkariak euren herrialdeei buruz eskaintzen diguten ikuspegiari esker, Mundubat-en ekintza egiturazko arazo handi-handi erdian garatzen dela antzeman daiteke. Herrialdean dugun zeregina zehazten dute, eta, horrez gain, partaidetzazko garapen endogenoaren lan-lerroa aurrera eramateko mehatxu zein aukerei buruz hausnartzen dute.

Beste ekarpen bat da, eta giza eskubideen urraketatiko biktimei zein herri-erakundeiei adierazitako elkartasuna sendotzen du, ez direlako subjektu pasiboak, erresistentzia-eratzailak eta alternatiba-bultzatzaileak baizik.



**Bat egin!
Izan bazkide**

Mundubat GGKE
Sombrerería, 2 3. / 48005 BILBO

(+34) 944 162 325

mundubat@mundubat.org

www.mundubat.org